

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

358 zb.
www.getxo.eus

>> 2021eko Uztaila



BULTZATU ZURE IDEIAK
finantzaketa eta aholkularitzarekin

Nabarmen^{tzekoak}

- > Wanted programaren ekitaldi berrian parte hartzeko deialdia
- > Udako jarduerak Gazteria Zerbitzuarekin
- > Oporretarako txartel erabilgarriak

* **Udako jarduerak Gazteria Zerbitzuarekin.** Datozen hilabeteetan, Gazteria Zerbitzuan hainbat jarduera, txango eta tailer egingo ditugu, udaz askoz gehiago goza dezazuen. Ekimenak *Getxo Ekinez 2021* planaren barruan egongo dira, COVID-19ren ondorio sozioekonomikoak arintzeko. Interesa edukitzekotan, adi egon sare sozialei, eta kontsultatu Gazte Informazio Bulegoan, bide horietatik parte hartzeko moduaren berri emango baitute.

BEKAK SARIAK

* **Global Training beka** UPV/EHUk kudeatuak eta 30 urtetik beherako unibertsitate-tituludunei zuzenduak, atzerriko enpresa edo erakundeetan ordaindutako praktikak egiteko. 65 beka daude eskuragarri eta horiek eskatzeko epea uztailaren 16an amaitzen da. Harremanetarako: Iñigo González (inigo.gonzalez@ehu.eus eta tel. 943 01 59 86).

* **Bizkaia Zubiairen III. Pintura Azkarraren Lehiaketa** *Nerbioi* Itsasadarren *Ondarea* gaiarekin, estatuan bizilekua duten 18 urtetik gorako artista guztientzat dago zabalik. Gomendatzen da alde zuzeneko egitea izenematea: promocion@puente-colgante.com edo 94 480 10 12.

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Uztaila

Hilak 1, osteguna: ASANBLADA: IRAILEKO PROGRAMAZIOA

Hilak 3, larunbata: IRTEERA: IGERILEKURA

Hilak 6, asteartea: EKINTZA: GYNKANA

Hilak 7, 8 eta 13 (asteazkena, osteguna eta asteartea): TAILERRA: BELDUR BARIK

Hilak 15, osteguna: EKINTZA: URETAKO JOLASAK

Hilak 17, larunbata: IRTEERA: KAYAK

Hilak 21, asteazkena: SUKALDARITZA: ETXeko IZOZKIAK

Hilak 23, ostirala: EKINTZA: PASEOA

Hilak 27, asteartea: TAILERRA: AITITE-AMAMEN EGUNA

Hilak 30, ostirala: EKINTZA: PIKNIK

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Uztaila

Hilak 1, osteguna: ASANBLADA: IRAILEKO PROGRAMAZIOA

Hilak 2, ostirala: IRTEERA: ESKALADA

Hilak 7, astelehena: MASTER CHEF: FRUTAZKO IRABIAKIAK

Hilak 9, asteazkena: IRTEERA: SURF

Hilak 15, asteartea: KIROLA: BADMINTON

Hilak 16, asteazkena: JOLASA: EZKUTAKETA

Hilak 23, asteazkena: JOLASA: UR PUXIKAK

Hilak 24, osteguna: ESKULANA: MARRAZKETA MARGO AKRILIKOekin

Hilak 28, astelehena: TAILERRA: FINGER SKATE

Hilak 30, asteazkena: TAILERRA: ERAZTUNAK



Wanted programaren ekitaldi berrien parte hartzeko deialdia

Finantzaketa eta aholkularitza zure ideiak bultzatzeko leloarekin, udal Gazteria Zerbitzuak eta Ekonomia Sustatzeko Arloak deialdi berri bat plazaratu dute 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua, Wanted programan parte hartzeko.

Egitasmo horren bitartez, finantzaketa, aholkularitza edo orientazio ezagatik edo bestelako arrazoiengatik aurrera ateratzeko arazoak dituzten gazteek bultzatutako proiektuak lagundu nahi dira. Izan ere, Wanted-ek aukeratutako proiektuak abian jartzeko beharrezkoak diren laguntzak emango ditu.

Orotariko laguntzak eskainiko dira: 10.000€-a arteko finantzaketa, aholkularitza profesionalerako zerbitzuak, formakuntza zehatza proiektuak dituen berrizantetan edo bide-laguntza zerbitzua. Oro har, proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide eta zerbitzuak eskainiko dira.

Bilatzen diren proiektuak dira: enpresa sortzekoak izan ala ez, profesionalak izan ala ez, antzezlanak sortu eta ekoiztekoak, performanceak, film laburrak egitekoak, erakusketak, edozelako lehiaketak antolatzeko, udalerrirako inte-

resgarriak izan daitezkeen web orriak, blogak eta abar, aisialdi jarduerak, hala nola ikastaroak eta tailerrak, gizarte arazoetan sentiberatzeko egitasmoak, euskararen erabilera sustatzekoak, hitzaldiak bezalako dibulgaziozko proiektuak eta abarrek. Hau da, orotariko proiektuak bilatzen dira programaren bitartez, berriak izan ala ez, baldin eta Getxoren gizarte, ekonomia edo kultura aberasten badute.

Parte hartzeko modua oso erraza da: mezu bat bidali behar da gazteria@getxo.eus helbidera eta hitzordu eskatu proiektua azaltzeko.

OPORRETARAKO TXARTEL ERABILGARRIAK

TXARTEL MOTA	ADINAK	BALDINTZAK	BALIAGARRITASUNA	PREZIOAK	ABANTAILAK
NAZIOARTEKO ATERPEKIDE TXARTELA	Gaztea: 14-29 urte Heldua: 30 baino nagusiagoa Familiarra: Unitatea + <14 seme-alabak Taldea: <18 begiralea (gutx. 10 perts.)	* NAN edo Pasaporte * Famili Liburua * Diruaren ordainagiria	Urte natural 1 txartela ematen den egunetik	30 urtez gorakoak: 10€ 30 urtez beherakoak: 5€ Familiarra: 18€ Taldea: 16€ http://reaj.com	Nazioarteko Aterpetxe Federazioko nazioarteko edozein aterpetxetan ostatu hartzeko
EUROPAR GAZTE TXARTELA	14 eta 29 urte bitartean	* NAN edo Pasaporte * Diruaren ordainagiria	30 urte bete arte	Dohainik http://www.gazteukera.euskadi.eus web orrian eska daiteke eta etxera bidaltzen dute 8-10 egunetan	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Bidaia aseguru - Garraioa - Dendak - Jarduerak - Zozketak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz
BIDAIAIENTZAKO TXARTELA (IYTC)	14 eta 31 urte bitartean	* NAN edo Pasaporte * Karnet tamainako argazki 1 * Diruaren ordainagiria	Urte natural 1 txartela ematen den egunetik	11 € Erabat digitala www.isic.es	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Garraioa - Ostatua - Museoak, antzerkiak, zinema,... - Mundu osoko leku historikoak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz (ISICConnect)
NAZIOARTEKO IKASLE TXARTELA (ISIC)	Edozein ikasle, edozein jatorri, formazio edo adinekoa	* NAN edo Pasaporte * Ikasle izatearen agiria (normalean, nahikoa izaten da kasuan kasuko ikasturtean ofizialki onartutako zentro batean egindako matrikula aurkeztea) * Karnet tamainako argazki 1 * Diruaren ordainagiria	Urte natural 1 txartela ematen den egunetik	11 € Erabat digitala www.isic.es	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Garraioa - Ostatuak - Museoak, antzerkiak, zinemak,... - Mundu osoko leku historikoak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz (ISICConnect)
NAZIOARTEKO IRAKASLE TXARTELA (ITIC)	Ikastetxe ofizial batean irakasle gisa kontratatuta dagoen edonor	* NAN edo Pasaporte * Ofizialki onartutako ikastetxe batean irakasle izatea egiaztatzen duen agiria * Txartel tamainako argazki 1 * Diruaren ordainagiria	Urte natural 1 txartela ematen den egunetik	11 € Erabat digitala www.isic.es	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Garraioa - Ostatuak - Museoak, antzerkiak, zinemak,... - Mundu osoko leku historikoak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz (ITICConnect)

- Txartela modu digitalean eskatu baduzu eta plastikozko bertsioa nahi baduzu, 6€ dira. Baldintzak: ISIC, ITIC edo IYTC baliozko txartela eta argazkia.
- Txartel hauek egiteko informazio guztia www.gazteukera.euskadi.eus web orrian eta Gazte Bulegoan (gaztebulegoa@getxo.eus edota 944.660.353) dago.